

Estereotipoen eskolara!



**IDOIA RODRIGUEZ
MONDRAGON**
IDAZLEA ETA
PEDAGOGOA

Azkenean iraila bukatu da! Udako lasaitasunak eskolara itzultzeari tokia utzi zion. Beharbada, tripan bola erraldoi bat eta esteetan korapilo meta sentitu dituzu umezaroko traumei pentsatuz. Beharbada, zure haurrak jasaten duen estresarekin bat egiten duzu. Edo, beharbada, ikasle edo irakaslea zara eta gaizki izate hori bizitzen duzu.

Zergatik sentitzen ote dugu hainbestek ikastegira itzultzeko frustrazioa? *Farniente*a eta eguzkia utzi behar ditugulako erritmo zorrotz bat errespetatzeko eta zentzugabekeriak barnatzeko, kapitalismoa elikatzeke?

Dudarik gabe. Denok dakigu eskola politikaren zerbitzurako eraikia dela eta helburua horren balioak ahal bezain goizik barnaraztea dela. Gure sistemak desoreka sozialak inposatzen dituenek, heziketak ezberdintasunak ahalbidertzen ote ditu? Ez litzateke posible izanen! Alta, jadanik 1960ko hamarkadan, Bourdieu eta Passeron soziologoek gure klase sozialak etorkizunarekiko baldintzatzen gintuela erakutsi zuten. Gaur, gainera, frantses lurraldeko edota Europar Batasuneko emaitzak ikusiz, neska eta mutikoak ikastegietan desberdinki tratatuak direla eta sexismoa integratzen ikasten dutela agertzen da.

Has gaitezen orientazioekin: arta eta ikasketa sozialetan %85 neskak dira,

ingeniaritzan, %83 mutilak. Ondotik, zigorrek jasotzen dituztenen %85 mutikoak dira. Segitzeko, irakasleek heren bat aldiz gehiago mutikoekin trukutzen dute neskekin baino. Haur eta gazte literaturako pertsonaia femenino nagusien proportzioa %38koa da. Bukatzeko, Europa mailan LGBTQIA+ ikasleen %54 baino gehiagok jazarpena bizi izan dute.

Zer suposatzen dute zenbaki horiek? Eskola, neutraltasunik ez ukaiteaz gain, injustizien lantegia dela. Desoreka horiek helduaroan baieztatzen dira: lehenik, langile pobreen %70 emazteak dira. Gero, mutikoek hainbeste zigor jasotzen dituzte, ikasgelan –gure jendartearen kopia– haien gizontasun toxikoa eta bortizkeria erabiltzen ikasten dutelako. Alderantziz, neskek pasiboak izaten barnatzen dute. Lan hori oharkabe egiten da. Alta, konponbideak badira: kultura ereduak eta irakaslearen jarrera oinarritzkoak dira norberaren pertzepzioarentzat eta besteen errespetuarentzat, baina hori, nola ikasten dugu? Zein tresna ditugu hezitzaile eta kultura eragile onak izateko?

Ikusten duzu, azkenean, ez da harritu behar agorrila bukaera, kaierak, zorroak edo agendak saltegieta ikusten dituzularik hotzikarak baldin badituzu. Eskola zure nortasuna eta izaera zapaltzeko eraikia den fabrika sexista delako. ●

Behin-behineko egoera



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Autoan musika entzuteko dudak aplikazioari aholkua emateko eskatzen diot beti. Garai batean Leon Benavente-rekin joaten nintzen bileretara eta klaseetara. Beharbada sumatzen zuen ohi baino tristeago nengoela garai hartan, eta zer dago aringarriagorik zu baino okerrago dagoen jendea badagoela jakitea baino, eta zu ere okerrago egon zintezkeela pentsatzea. Orain oporretara joatea besterik ez dut buruan, esaten zuen kankak, lehen barre eginarazten zidanak, orain triste jartzen nau, lehen zoriontsu egiten ninduenak, ez da existi-

tzen. Izartxo bat jarri nion kantari mai-teen zerrendara gehitzeko. Ez hitzengatik bakarrik, izenburuarengatik ere bai: *Behin-behineko egoera*. Eta akordatu naiz Baionan izan genuen bilera hartaz, nola hiru idazle geunden, nork bere hutsunearekin barrenean, malkoei ezin eutsiz. Burutara etorri zait Asier Serranok esan zidana autobusean: gezurra badirudi ere, hobeki egongo zarete egunen batean. Nago hirurak hobeki gaudela garai batean baino, baina ber gisan maite ditugula kanta tristeak, Serranorenak zein Benaventerenak. ●